

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2017/18

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25938 - Komunitaterako Gizarte Zerbitzuak

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Politikak moduloaren baitan kokatzen da eta Gizarte Zerbitzuen Oinarriak irakasgaiaren jarraipena izango litzateke hirugarren mailako irakasgaiaren -Gizarte Zerbitzu Espezializatuak- parekidea izango litzatekeelarik gizarte zerbitzuen arreta mailak lantzerako momentuan.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Azalpen laburra:

- EAEko gaur egungo gizarte-zerbitzuen gizarte-babes sistema.
- Gizarte zerbitzuen lehenengo arreta maila: ezaugarriak, eskumen-maila, prestazio-motak...
- Gizarte-bazterketaren aurkako politikak EAEn.
- Prestazio ekonomikoak, arreta berezia eskaini prestazio ez kontributiboei.
- Gizarte zerbitzuen lehenengo arreta mailako zerbitzu nagusiak: informazio zerbitzuak, balorazioa eta orientazioa, etxez-etxekeo laguntza zerbitzua, larrialdietarako gizarte-zerbitzua.
- Komunitatearen inplikazioa gizarte-zerbitzu eta gizarte-ongizatean.

KONPETENTZIAK:

- Gaur egungo gizarte-arazo, egoera eta errealitate ezberdinen inguruko ezagutza, ulertze eta hausnarketa kritikoa sakondu. Honen bidez komunitate, erakunde, talde eta pertsonekin lan egin ahal izateko gaitasunak landu (Zeharkakoa).
- Esku-hartze profesionalerako gizarte-baliabideen eta hauen marko juridikoa zein garrantzitsua den azpimarratu, honen bidez, eta hausnarketa kritikoa ahalbidetuz, enpresa, erakunde publiko eta hirugarren sektoreko antolaketa eta kudeaketa hobetu ahal izateko.
- Jarduera profesionalerako beharrezkoak diren trebetasunak landu: hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna, komunikazioa, harremanak, talde-lana, etab. (zeharkakoa).
- Komunitaterako gizarte-zerbitzuen antolaketa-egitura eta funtzioak ezagutu.
- Lehen arretako gizarte zerbitzuetan gizarte langileek duten funtzioak eta eskuhartze maila zehaztu.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. Egungo gizarte zerbitzuen babes sistema.
  - 1.1. Gizarte babeserako sistemak (zentzu hertsian)
  - 1.2. Gizarte babeserako sistemak (zentzu zabalean)
  - 1.3. Komunitaterako gizarte zerbitzuak eta gizarte zerbitzu espezializatuak
2. EAEko Gizarte Zerbitzuetako legea
  - 2.1. Sarrera
  - 2.2. Gizarte Zerbitzuetako legearen ezaugarriak: Katalogoa-Kartera
  - 2.3. Helburuak
  - 2.4. Printzipioak
  - 2.5. Komunitaterako gizarte zerbitzuak EAEko Gizarte Zerbitzuetako Legean
  - 2.6. Legearekin emandako eztabaida nagusiak eta Komunitateko Gizarte Zerbitzuen erronkak eta etorkizuna
3. Komunitaterako gizarte zerbitzuak
  - 3.1. Sarrera eta definizioa
  - 3.2. Ezaugarri nagusiak
  - 3.3. Helburuak eta funtzioak
  - 3.4. Prestazio eta zerbitzu motak
4. Komunitaterako gizarte zerbitzuen egoera EAEn
  - 4.1. Ezaugarri orokorrak
  - 4.2. Langilegoa
  - 4.3. Erabiltzaileak
  - 4.4. Ondorioak eta etorkizuna
5. Euskal Autonomia Erkidegoko bazterkeriaren aurkako politikak

- 5.1. Pobrezia eta gizarte bazterkeria: kontzeptuak eta ezaugarriak.
- 5.2. Pobrezia eta bazterkeriaren aurkako erantzuna EAEn.
- 5.3. Gaur egungo diagnostikoa. Erronkak eta etorkizuna

- 6. Prestazio ekonomikoak ez-kontributiboak
- 6.1. Gizarte Segurantzaren Sistemako Pentsio Ez-Kontributiboak
- 6.2. Dependentziarako prestazioak
- 6.3. Beste prestazio ez kontributiboak

- 7. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua
- 7.1 Definizioa eta helburuak
- 7.2. Pertsona onuradunak
- 7.3. Etxeko laguntza zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu motak

- 8. Komunitateko Gizarte Zerbitzuen beste arlo batzuk
- 8.1. Informazio, balorazio, orientazio eta aholkularitza zerbitzuak
- 8.2. Elkarbizitza, bergizarteratze eta ostatu alternatibo zerbitzuak
- 8.3. Gizarte elkarkidetzarako zerbitzua

## METODOLOGIA

- Klase magistralak: Klase hauetan edukin teoriko nagusienak aurkeztuko dira. Era berean, ikaslearen ikerketa eta analisi kritikorako beharrezkoak diren tresnak eskeiniko dira. Klase hauetan ikaslearen partehartze kritikoa bultzatuko da.
- Mintegiak eta jardura praktikoak: Kasu honetan ikaslearen garrantzia erabatekoa da, saio hauek talde zein norbanakoaren ekarpenen arabera egituraturako baitira. Aurkezpenei arreta berezia eskeiniko zaio, honen bidez jendearen aurreko trebetasunak bultzatu ahal izateko.
- Lan autonomoa: Kasu honetan talde zein norbanakoek egindako lanak izango dira. Momentu oro, irakaslearen etengabeko gainbegiraketa egongo da.
- Tutoretzak: Saio hauetan irakasleak klase teoriko, mintegien prestaketan edota lanen ebaluazioren inguruko zehaztapenak eta eztabaiden argipenak egingo ditu.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoa TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio Jarraitua:  
Bide hau ohikoa izango da eta baldintza klasera %75ean etortzea izango da.  
Azken proba notaren %70.  
Praktikak (%20) eta klasean partehartzea (%10). Guztira %30.  
Ikasgaia gainditzeko bi probak gainditzeko derrigorrezkoa da.

Deialdiari uko egiteko, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (12.2 art). Horrela izanik, EZ AURKEZTUA kalifikazioa ezarriko zaio

Ebaluazio ez jarraitua

Azken proba notaren %100.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da (8.3.art.).

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluazio Jarraitua:

Bigarren deialdi honetan pratika edo azken proba ateratako nota gordeko da

Azken proba notaren %70.

Praktikak (%20) eta klasean partehatzea (%10). Guztira %30.

Ebaluazio ez jarraitua

Azken proba notaren %100.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da (8.3.art.).

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

- Gizarte-zerbitzuen legeak (1982, 1996, 2008).
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea (2008).
- Gizarte-Bazterketaren Aurkako Legea (1998).
- Gizarte-Eskubideen Gutuna (2000).

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

- ¿ ALEMÁN, Carmen eta FERNÁNDEZ, Tomás (2004): Introducción a los servicios sociales. UNED. Madril.
- ¿ ALONSO, José María eta GONZALO, Bernardo (2000): La asistencia social y los servicios sociales en España. B.O.E. Madril.
- ¿ CASADO, Demetrio eta GUILLÉN, Encarna (2005): Manual de servicios sociales. CCS. Madril.
- ¿ FANTOVA, Fernando (2008): Sistemas públicos de servicios sociales. Cuadernos Deusto de Derechos Humanos, 49, Universidad de Deusto, Bilbo.
- ¿ GALLARDO, M<sup>a</sup> del Castillo (2006): Manual de Servicios Sociales Comunitarios. Síntesis. Madril.
- ¿ LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERITZA (2006): Catálogo de servicios sociales comunitarios, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeritza, Madril.
- ¿ MATA DE ANTONIO, José María (2005): Legislación para el Trabajo Social. AQUA. Zaragoza.
- ¿ SUBIRATS, Joan (Zuzendaria) (2007): Los servicios sociales de atención primaria ante el cambio social. Lan eta Gizarte Segurantzza Ministerioa. Madril.
- ¿ INSERSO (2007): Guía de prestaciones para personas mayores, personas con discapacidad y personas en situación de dependencia. Recursos Estatales y Autonómicos. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

##### **Aldizkariak**

Zerbitzuan

Documentación Social

Revista Española del Tercer Sector

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.bizkaia.net/>

<http://www.gizartegaiak.ej-gv.net/>

<http://www.vitoria-gasteiz.org/>

<http://www.bizkaia.net/info/boletin/>

<http://www.sis.net>

## **OHARRAK**

Lanetan nahiz azterketan, idatzizko komunikazioan zuzentasun edo akats gramatikalak badaude, honek suspentsoa ekar dezake